

ELKARRIZKETA

XABIER ZABALE TRIKITILARIA

«Trikitixari etorkizuna ikusten diot»

Xabier Zabale Azkoitian jaiotako trikitilari bat da. Txiki-txikitatik hasi zen trikitixa ikasten; izan ere, trikitilari familia batekoa da. Xabierrek 1991ko Trikitixa Txapelketa irabazi zuen. Gaur egun, berriz, mundu hori alde batera utzi eta trikitixa irakasle dihardu.



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Xabier Zabale trikitilariak Edurne Iturbe eta Oihana Irastorzarekin joko du gaur, Kursaleko jaialdian.

■ **Oso gazte hasi zinen trikitixa jotzen.**

Hamaika urterekin hasi nintzen ikasten; 24-25 bat urte daramatzat ikasten. Azkoitian ikasi nuen, baina orain Azpeitian bizi.

■ **Eta nondik sortu zitzaizun trikitixa ikasteko gogo?**

Etxean aita panderoa jotzen zuen, eta osaba batek soinua, trikitixa jotzen zuen. Gainera, beti ibili izan dira gurasoak trikitixa inguruan. Txiki-txikitatik gustatzen zitzaidan niri ere, eta beti hasi egin behar nuela eta hasi egin behar nuela esaten nuen. Hala ere, garai hartan ez ginen hain gazte hasten ikasten eta txistuarekin hasi nintzen. Geroago soinuarekin hasi nintzen.

■ **Plazaz plaza ibilia zara trikitixa jotzen. Txapelketetan ere parte hartu duzu. Zein alde dago bien artean?**

Gaur egun txapelketa mundua utzita daukat; azkena atera nintzena pieza berrien lehiaketan izango zen, duela bost-sei bat urte. Hamaika urterekin hasi ikasten eta urtebetera atera nintzen lehenengo txapelketan; urte asko dira txapelketetan eta baita plazetan ere egindakoak. Gehienbat jotzen ibiltzen naiz, baina irakaskuntzan ere bai. Azkoitiko musika eskolan nago, Elgoibarrera ere joaten naiz eta baita Mendarora ere.

■ **Ikasle asko dituzu? Zein etorkizun ikusten diozu trikitixari?**

Nik trikitixari etorkizuna ikusten diot; hau da, trikitixa eskolak ireki zirenetik pixka bat aurrera joan dela iruditzen zait. Hala ere, gaur egungo ikasleek ez du-

te gure garaian bezain serio hartzen. Badira serio hartzen dutenak ere; baina, orokorrean, *hobby* bezala hartzen dute, eta denbora gutxi eskaintzen diote instrumentuari.

■ **Beraz, ikasle gehiago baina seriotasun gutxiago dagoela esango al zenuke?**

Nik baietz uste dut. Denetik egongo da gaur egun ere; baina, nire ustez, gure garaiko txapelketetan gaur egun baino maila hobea zegoen gazteen artean behintzat. Hamar-hamabi urtetik hasi eta hogeira bitartean, garai hartan jendeak dezente serioago hartzen zuen eta saiatu ere gehiago egiten zen. Gaur egun, asko gurasoen-gatik hasten dira. Instrumentua ikasten hasi eta segituan erosteko ohitura izaten zen lehen, eta gaur egun, bi edo hiru urte pasatzen ditu jendeak instrumentua erosi gabe. Etxean jotzen ez dutenez, aurrerapena ere askoz ere makalagoa da: plazan jotzen hastea asko kostatzen zaie. Instrumentuek eguneroko dedikazioa behar dute, baina jendeak ez du ikusten hori horrela.

■ **Trikitixak, bai estilo alde-
tik bai entzule aldetik, alda-
ketak izan ditu azken urtee-
tan. Zer iruditzen zaizu?**

Egon diren aldaketak onerako izan dira. Garai batean trikitixa eta panderoa baserri inguruan eta erromeria giroan bakarrik entzuten ziren. Azkenean, iritsi da taldeak osatzeko erabiltzera, beste instrumentu batzuekin nahastera, eta orain beste era batera jotzen da.

Garai batean fandango, arin-arin, pasodoble eta horrelakoak jotzen ziren; gaur egun, berriz, edozer jo daiteke trikitixa batekin, munduko edozein tokitako erreperorioa. Era horretan asko aldatu da.

■ **Kursaaleko jaialdia berezia izango al da?**

Kursaalean izango diren gehienekin aurretik jotakoa izango naiz. Kanpotik datorren jendearekin jotzea arraragoa egingo zait, inoiz ez baitut jo jaialdietan kanpoko soinu jotzaileekin.

■ **Trikitilariren bat aukeratu behar izanez gero, zein hautatuko zenuke?**

Ez dakit. Garai bakoitzean askok izango zuten garrantzia. Trikitilariak, bakoitza bere garaiarekin lotzen dela esango nuke.

TXAPELKETAK

«Gaur egun txapelketa mundua utzita daukat; azkena atera nintzena pieza berrien lehiaketan izango zen, duela bost-sei bat urte»

ALDAKETAK

«Aldaketak onerako izan dira; garai batean trikitixa eta panderoa baserri inguruan eta erromeria giroan bakarrik entzuten ziren»

ESTILOAK

«Garai batean fandango, arin-arin, pasodoble eta horrelakoak jotzen ziren, baina gaur egun edozer jo daiteke trikitixa batekin»